

azpeitianzer?

udal aldizkaria 170. zenbakia
2015ko martxoa

LANPOSTUAK

EKONOMIA

ENPRESAK



GAZTEAK

AZPEITIA

LAGUNTZAK

Azpeitiko Udalak 2014 urtean emandako laguntzei esker, hainbat lanpostu sortzea lortu da herrian eta eskualdean



Jolas denbora
hezkidetza proiektu
berria abianjarri da



Hezurren egia
Urola erdiko lehen
biztanleak ezagutuz

ale honetan zer?

- 3 Azpeitia ezagutzen eta erabakiak
- 4 Hezkidetza foroa
- 6 Hezurren egia
- 8 Erreportajea
- 14 Motxean
- 15 Agenda
- 16 Hemenbuy

Argitaratzailea: Azpeitiko Udal
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzaitetza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74

AZPEITIA GARDENA

Udaleko Ekonomia, Lana eta enplegua, Turismoa eta Elkarrekin sailerako informazioa edota Udal langile eta goi-karguen soldatak eta Udalaren zor-biziaren bilakaera ezagutu nahi? Azken urteetako aurrekontuak edo Udalak dituen 3.000 eurotik gorako fakturak kontsultatu nahi? Sar zaitetz **OPEN DATA eta KONTUAK GARBI** atarietan!

Azpeitia ezagutzen

CROMAGNON GIZAKIA

(DUELA 40.000 URTE INGURUKO GIZAKIA)



KOBAZULOETAN ETA AIRE ZABALEAN AURKITUTAKO AZTARNEI ESKER DAKIGU GURE ARBASOAK HAN BIZI IZAN ZIRELA:

- HASIERAN HARRIA LANTZEN ZUTEN (SUHARRIAK).
- ONDOREN HEZURRAK LANTZEN HASI ZIREN.
- EHIZTARIAK ETA FRUITU BILTZAILEAK ZIREN.
- KOBZULOETAN MARRAZKIAK EGITEN ZITUZTEN.



erabakiak

Urtarrilaren 13an egindako Udalbatzak honako erabaki hauek hartu zituen:

- 1.- Udalbatzak 2014ko abenduaren 2an egindako bilkuraren akta aho batez onartu zen.
 - 2.- Ezkerregegi baserriko partzelan ostalaritza jardura sortu ondoren, bide publikoa egokitzeko hirigintzako hitzarmena aho batez onartu zen.
 - 3.- Azpeitiko Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren arteko hitzarmena, garraio alorrean MUGI txartelak eskatzen dituen datuak lagatzeko, aho batez onartu zen.
 - 4.- Azpeitiko Udal Kiroldegi Patronatuan harrera, uretako sorospen, igeriko jardura, aerobik, mantenimenduko gimnasia, muskulazio eta antzeko jardura fisikoen zerbitzuak eskaintzeko Kirol Patronatuak eta BPXPORT KIROL ZERBITZUAK S.L.ren arteko kontratu administratiboaren aldatzea aho batez onartu zen.
 - 5.- Alkatetzak 2014ko martxoan emandako ebazpenen berri eman zen.
 - 6.- Galdera eta erreguak.
- Otsailaren 3ko Udalbatzan, aldiz, erabaki hauek hartu ziren:**
- 1.- Udalbatzak 2015eko urtarrilaren 13an egindako bilkuraren akta aho batez onartu zen.
 - 2.- Aho batez onartu zen Loiola-Manresa bitartean igaroko den Ignazio-Bidearen inguruan Lankidetzaren Hitzarmena.
 - 3.- Arreta soziosanitarioa behar duten herriarrak zerbitzu koordinatua eta egonkorra izan dezaten Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak elkarrekin adostu duten PROTOKOLOA aho batez onartu zen.
 - 4.- Azpeitiko Udalaren eta E.J.-ko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren arteko hitzarmena, Egibar baserrian dagoen Ingurumen Hezkuntzaren museoan ematen diren jarduerak bideratzeko aho batez onartu zen.
 - 5.- Azpeitiko Udalaren eta herriko musika bandaren arteko hitzarmena (2015. ekitaldirako dirulaguntza) aho batez onartu zen.
 - 6.- 2014ko aurrekontuan, gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko 5. kreditu aldaketaren berri ematea (Alkatetzak 2014ko azaroaren 25ean onartua) aho batez onartu zen.
 - 7.- Alkatetzak 2014ko apirilean emandako ebazpenen berri eman zen.
 - 8.- Galdera eta erreguak.

Bailarako ikastetxeetako jolas denboren errealitatea aldatzeko proiektua abian jarri da

Haur eta gazteen espazioan, denboran, harremanetan eta ikuspegietan hezkidetza eta tratu onen irizpideak txertatzea du helburu



azpeitia eta Azkoitiko Udalek Hezkidetza Foroa jarri dute abian, eta bertan, bi herrietako ikastetxeak hezkidetzailleago bihurtzeko bitartekoak aztertzen eta lantzen ari gara. Zentzu honetan, emandako azken pausoa JOLAS DENBORA proiektua da.

“Foroa abiatu genuenetik identifikatu genuen eskoletako jolas-garaiak espazio garrantzitsu eta interesgarria zirela hezkidetza txertatzeko. Izan ere, egun eskoletako jolastokiak begiratzea besterik ez dago ohartzeko nola errepikatzen diren gure jendartean nagusi diren arau eta dinamikak. Ikastetxez ikastetxe errealitea aldakorra bada ere, guztietan hartu izan dituzte neurriak jolastokian harreman



“Ikastetxe guztietan hartu dira neurriak jolastokian harreman parekideagoak sortzeko”

parekideagoak sortzeko”, agertu du Azpeitiko Parekidetasun batzordeburu den Leire Etxanizek.

JOLAS DENBORA proiektuaren helburua, neska mutilen arteko harremanetan dinamika berriak sortzea da, lehiakortasunaren aurrean, elkartasuna, talde dinamika, lasaitasuna... bultzatzea, futbola eta saskibaloia- ren pisua gutxitzea eta Azpeiti-Azkoitiko eskolek norabide honetan eman dituzten urratsei babesa eta euskarria ematea. Baliabideak, denbora eta pertsonak haien eskura jarritz.

Honela, “Jolas kooperatiboen egunak” beraz, abiapuntu hartu nahi ditu eskoletan orain arte “baloi gabeko eguna” izenarekin,

“edo bestelako antolakuntza moduekin neska-mutilen arteko harremanetan eragiteko asmoa izan ditugun ekimenak, eta era berean, aldaketa sakonagoen lehen urrats izan nahi du, gure asmoa ez baita mugatzen asteen egun batean aldaketak eragitera. Haur eta gazteen espazio, denbora, harreman eta ikuspegietan hezkidetza eta tratu onen irizpideak txertatzea dugu ipar”.

Proiektu honek, beraz, eskoletan abiatu diren eraldaketa dinamika horiek indartzea du asmo, horretarako baliabideak jarritz. Egitasmo hau aurrera gauzatu dedin, Azpeitia eta Azkoitiko udalek proiektuari babesa emateaz gain hainbat konpromiso hartu ditugu ikastetxeekin elkarlanean. Udaletatik hainbat bitarteko eskaini dira:

“Azpeitia eta Azkoitiko Udalek, proiektuari babesa emateaz gain, hainbat konpromiso hartu dituzte ikastetxeekin elkarlanean”

- Irakasleei zuzendutako hainbat formazio saio egin dira. Irakasleak, jolas denborako espazioaren erabileraren aldaketa prozesuan ezinbestekoak dira. Egunerokoan neska mutilekin jolas orduan bait daude, beraien beharrak entzuten eta asetzen.
- Aholkularitza zerbitzua martxan jarria dago.
- Ikastetxe bakoitzean hezitzaile batzuen eskutik, hainbat jolas denbora dinamizatu-tuko dira.
- Jolas eta material kooperatiboak eskei-niko dira.

“Aurrerantzean ere, urrats berriak ematen jarrituko dugu, gure seme alabek harreman justuagoak eta askeagoak izan ditzaten”, amaitu du Etxanizek.

Urolako lehen biztanleen aztarnen atzetik

Hezurren egia proiektuaren eskutik, bailarako ondarea balioan jartzea nahi da



Urola bailarak duen ondarea ugaria eta aberatsa da. Zientzialariek egiaztatutako aurkikuntza ugari eta baliotsuei esker, Urola bailararen historia berreraiki dezakegu, duela 300.000 urtetik baino gehiagotik (Historiaurretik) gaur egunera. Aurkitutako aztarnei esker, badakigu lehenengo biztanle haiek ziklo klimatiko desberdinetan non finkatu ziren, bizirik irauteko zertaz baliatu ziren, sarraskijaleak, ehiztariak edo nekazariak ziren, nomadak edo sedentarioak ziren, sinesmenik bazuten edo ez... Hau gizarteratu eta bailarako herritarrei jakinarazteko, Hezurren Egia proiektua jarri da abian.

Proiektua bailarako 5 udalerrik (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Errezil eta Beizama), Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Antxieta Arkeologia Taldeko kideek jarri dute abian. "Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2013ko

partaidetzazko aurrekontuen baitan herritarrek erabakitako zazpi proiektuetako bat dugu hau. 30.000 euro bideratuko dira honetarako, izan ere, izan zirelako gara eta hori dena ezagutzea ezinbestekoa dugu zeintzuk garen eta izango garen jakiteko. Seguru arrakasta izango duela", agertu du Iker Ruiz de Egin aldundiko turismo zuzendariak.

“Urolako ondare natural, arkeologiko eta historikoa dibulгатzeko proiektu handi baten lehen urratsa da”

Honela, bailarako ondarea balioan jartzea da helburua. Horretarako, 3 fase izango dituen ekimena jarri da abian. Lehen fa-

sean, Urola Erdiko aurrehistoriako ondarearen gaineko dibulgazio programa jarri da martxan, herritarrek eskualdean zer ondare dagoen jakin dezaten. Horretarako, etxek etxe Hezurren egia proiektuaren gaineko eskuorriak banatu dituzte eta hitzaldi desberdinak eskaini dira. Webgune berezi bat ere jarriko dute martxan. "Urola bailarako ondare natural, arkeologiko eta historikoa dibulгатzeko proiektu handi baten lehen urratsa da", azaldu du Jesus Tapia Aranzadiko arkeologoak.

Bigarren fasea epe ertainera begira diseinatu da, hemendik bost bat urterako ekintzak izango dira, bisitak zein hitzaldiak prestatuko dira. Hirugarren eta azken fasea, berriz, eskualdean historiaurrea lotuta, sare kultural dinamikoa sortzea izango du helburutzat, hau da, historiaurrea kultura eskaintza bilakatzea; turismoan eragitea bilatuko delarik.



Jose Inazio Arrieta. Antxieta Arkeologia elkarteko kidea.

1. Zein da Hezurren egia proiektuaren garrantzia?

Antxieta Arkeologi Taldeak 50 urte igaro ditu Urola eta Gipuzkoa osoan zehar miaketa arkeologikoak egiten. Esperientzia zabal horren ondorioz, aurkikuntza ugariak egin ditu Arkeologia eta Historiaurrea arloetan, eta zenbait kasutan garrantzia internacionala duten aztarnategiak aurkitu dira. Aztarnategi guztiak dira garrantzitsuak, eta denon ardura da gure ondarea osatzen duten elementu guztiak babestea. Horretarako funtsezkoa da orain arte dakiguna zabaltzea, eta gizarteak jakin behar du bere eskuetan zer dagoen: ondarea gozatzeko eskubidea, baina aldi berean hura babesteko betebeharra. Tristeia da jendeak ez ezagutzea bere jatorria, hau ezagutzea oso aberatsa baita. Ondare arkeologikoa zabaltzeko proposamen honek ez du jarraitu nahi zenbait lekutan ikusi izan dugun eredu berdina, interpretazio gune handirena hain zuzen, askotan ez baitituzte betetzen hasieran ustetako perspektibak. Gune tematiko gehienak erakargarritasuna galtzen dute hasierako bultzada pasatzean, eta laster

hasten dira zorrak eta galerak sortzen. Gure proposamena, ondarea zabaldu nahian, bertako azpiegitura eta baliabideen osagarri izan diatekeen estrategia kulturala martxan jartzea da, Historiaurrearekin zerikusia duten aktibitate desberdinen bitartez.

2. Lehen fasea dagoeneko abian jarri da eta hitzaldiak ere eskaini dira. Zein da hasierako balorazioa?

Lehen fasea orain amaitzera doa, Ingurugiro Etxea Museoa jarriko den erakusketa berezi batekin. Lehen fasean zabalkuntza, sentsibiltatea eta ondareakiko errespetua, jendearen ineteresa piztea eta inplikazioa lortzea nahi zen. Eta esan beharra dago, proiektuak izan duen oihartzun mediatikoa ikusiz, arrakasta handia izan duela. Azpeitian eta Azkoitian emandako hitzaldietan, jendearen erantzuna ezinhobeia izan da, guztira 160tik gora pertsona bildu baitira. Beraz, helburuak ziren jendearen jakin-mina piztea eta ondarearen inguruan arreta esnatzea, erabat bete direla esan daiteke.

“Aztarnategi guztiak dira garrantzitsuak, eta denon ardura da gure ondareko elementuak babestea”

3. Hurrengo pauso bezala, ekintza didaktikoak eta ludikoak egitea dela esan duzue. Nola irudikatzen duzue hori egitea?

Bigarren fase hau hemendik bost urtera hasiko litzateke eta adibidez, tailerrak, irteerak, lekuen bisitak... aurreikusten dira. Era berean, Ingurugiro Etxea Museoa doan erakusketa iraunkorra dela-eta, bertako hezitzaileak formatzea ezinbestekoa izango da. Guzti honekin bailarako banakako eta eragil kulturalen arteko elkarlana eta kooperazioa landu nahi dugu, ondarearen inguruan eskaintza kulturala, turistikoa eta ludikoa sustatuz.

4. Sare kultural dinamikoa osatzea ere aipatu da hirugarren fase batetan. Zertan datza?

Aztertu ditugun esperientzia batzuen artean, argi ikusten da ondarearen kudeaketak arrakasta handiagoa lortzen duela bisitaz gaineko ekintza osagarriak ugaritzen direnean. Honek esan nahi du lekuko bisita hutsa egitea baino, askoz erakargarriagoak direla bisitaren inguruan planteatzen diren aktibitateak. Eta horiek bisitarien fidelizazio sendoagoa lortzen dute. Urolako aztarnategiak banan banan eta zuzenean ustiatu ordez, proposatzen duguna bailara osoko mailan Historiaurrea eskaintza-tematikoa bihurtzea da, Urolako sare kultural, turistikoa eta ludikoa polo erakargarria bihurtuz.

Azpeitiko Udalak 380.100 euro banatu ditu ekonomia sustatu eta enplegua sortzeko helburuarekin

Azpeitian 48 mugagabeko kontratu egitea lortu da eta eskualdean, berriz, beste 61 enplegu gehiago sortu dira sustapen planei esker



Azpeitia sufritzen ari den egoera ikusirik, Azpeitiko Udalak geldirik ez egotea eta pauso eraginkorrak ematea erabaki du. Nahiz eta eskumenik ez izan ekonomian eta lan munduan, herriko motorea izateko apustuari tinko heldu dio. Honela, ekonomia sustatzeko helburu garbiarekin, hainbat ekimen burutu eta laguntza desberdin eman ditu Udalak.

Alde batetik, enpresa eta jarduera berriak sortzeko eta lanpostuak eragiten duten enpresei laguntzak eman zaizkie 2014 urtean zehar. Laguntza hauek, bi zatitan eman dira, batetik Azpeitiko Udalak bere

sustapen plan propioaren baitan, eta bestetik, Azkoitiko Udalarekin batera, eta Iraurgi Berritzen agentziaren bidez kudeatu den sustapen planaren baitan. Lehenbizikoak Azpeitiko udalerriko enpresei eragiten zien eta bigarrengoak, aldiz, bailarako jarduerai.

Nahiz eta eskumenik ez izan ekonomian, herriko motorea izateko apustuari tinko heldu dio Udalak

Era berean, egoera sozio-ekonomikoak gazteengan eragin zuzena izan duenez, Azpeitiko gazteak alokairuan bizi ahal izateko laguntza bereziak banatu ditu, 134.000 euro hain zuzen ere. Gainera, ekonomia suspertzeko tresna desberdinak erabiltzearen garrantziaz oharkatuta, herriko zein bailarako baliabide turistiko ugariak Madril en ospatzen den Fitur nazioarteko azokan erakutsi eta zabaldu dira.

Jarraian, Azpeitiko Udalak emandako diru laguntza eta ekimen desberdin hauen inguruko informazio zehatza izango duzu:



Azpeitiko Udalak 230.111 euro banatu ditu herriko ekonomia sustatzeko eta 48 mugagabeko kontratu izatea lortu da

“Krisia bortizki pairatzen ari den sektoreetako beste bat industria da. Azpeitian izan duen pisua garrantzitsua da eta horregatik, ahalegin bereziaz egiten ari da Udala, industria berreskuratzeko”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak. Zentzu horretan, 235.000 euro bideratu dira Udal aurrekontuetatik enplegua sortzeko asmoa duten jardueren artean.

Aurkeztutako proiektuak aztertu ondoren, eta banatutako laguntzei esker, Azpeitian 48 mugagabeko lanpostu sortzea lortu da. Lanpostu hauek gainera, azpeitiarren esku daudela nabarmendu nahi da.

Azpeitiko sustapen planeko laguntzak lau lerrotan banatu dira:

1- ENPLEGUA SORTU EDO MANTENTZERA ZUZENDUTAKO PROIEKTU INDUSTRIALAK BULTZATZEKO DIRU LAGUNTZAK

11 jarduera edo enpresei lagundu zaie aurkeztu duten proiektuen arabera eta banatu den zenbateko guztia 80.000 eurokoa izan da.

2- LANGABETUAK LAN MERKATUAN SARTZEKO EDO LAN BALDINTZEN HOBETUNTZAK GAUZATZEKO DIRU LAGUNTZAK

28 enpresei langabetuak lan merkatuan sartzeko edo baldintzak hobetzeko 79.111,11 euroko laguntzak eman zaizkie. Guztira 48 kontratu mugagabe gehiago lortu dira neurri honi esker.

3- EMAITZA BEZALA ENPLEGUA SORRERA DUTEN PROIEKTU EKINTZAILEAK ETA IZAERA SOZIALA DUTENENAZAKO DIRU LAGUNTZAK

Zazpi enpresa izaera soziala duten artean 39.025,88 euro banatu dira. Proiektu guztiek dute enplegua sortzeko helburua.

4- MERKATARITZA EDO LEHEN SEKTOREARI ZUZENDUTA ENPLEGUA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK

33 eskatzaile izan dira eta hauen artean 31.974,12 euro banatuko dira. Lerro honen baitan kontrataziori dagozkionak eta aldi baterako kontratazioak laguntzeagatik 6 kontratu izan dira. Lokalak berritzeagatik edota inbertsioagatik 19 jarduera, lehen sektoreko bertako produktuak kontsumitzeagatik 6 eta azkenik, internet bidez produktuak saltzeko emandako diru laguntzak 2 enpresei eman zaizkie.

Bailaran **61** lanpostu gehiago sortu dira Azkoitiko Udalarekin elkarlanean



Azpeitiko Udalak emandako laguntza hauez gain, Azkoitiko Udalarekin batera ere beste hainbat laguntza eman ziren 2014 urtean. Modu honetan, Iraurgi Berritzenen bidez, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek 150.000 euro bideratu zituzten iaz ekintzailetasuna sustatzeko, eta egitasmo horrek eman ditu aurreneko fruituak: diru-laguntza horri esker 61 lanpostu zuzen sortu dira bi herriotan, eta zeharkako gehiago ere bai. Guztira 38 eskaera jaso ditu garapen agentziak, eta horietatik 35i eman dizkiete laguntzak, 2.000 euro eta 43.000 euro artekoak. Laguntzarik gabe hiru proiektu soilik gelditu dira, oinarritzko baldintzak betetzen ez zituztelako.

Hiru lerrotan eman dira laguntzak: batetik, edozein izaera juridikopean sortutako enpresak eratzeako, bestetik, gizarte ekonomiako enpresak martxan jartzeko, (lan elkartuko kooperatibak edo luraren ustiapen komunitarioak

kooperatiba edo lan sozietateak...), eta azkenik, izaera estrategikoa edo berritzailea duten enpresak sortzeko laguntzak.

Emaitzarekin oso gustura daude eta horregatik, aurtun beste 150.000 euro jarriko dituzte gisa honetako laguntzetarako

Bailarako egoera ekonomiko latzari aurre egiteko asmoz erabaki zuten bi udalek neurriak hartzea: "Udalok eskumen gutxi ditugu alor honetan, eta bi aukera genituen; Jaurilaritzari begira gelditu, edo arriskatu eta geure kabuz zerbaitegin", azaldu dute. Bigarren aukeraren aldeko

apustua egin dute, eta bide horretan emandako pausu bat izan dira laguntza hauek, banakako lanpostuak sortzearen aldeko pausua.

Emaitzarekin oso gustura daude, eta horregatik, aurtun ere beste 150.000 euro jarriko dituzte gisa honetako diru-laguntzak bideratzeko. Oinarriak lantzen ari dira, eta behin hori erabakita, berehalakoan egingo dute deialdia. "Langabeziari aurre egitea da gure lehentasuna, eta bide horretan lanean jarraituko dugu hemendik aurrera ere, gure esku dagoen guztia eginez".

Besteak beste, ekintzailetasuna indartzearekin batera, enplegu orientazio zentroak jarri dituzte martxan, turismo eta lehen sektoreak sendotzeko ahalegin bereziak egiten ari dira, eta beste hainbat programa ere ari dira lantzen Iraurgi Berritzenen bidez. Informazio guztia: iraurigiberritzen.net edo 943 85 11 00.



Azpeitiko **47** gazteri laguntzak eman zaizkie etxebizitzak alokatzeko



Herriko ekonomia sustatzea da Udalaren lehentasuna. Honela, krisiaren ondorioz, gaizkien pasatzen ari diren herritarrei laguntzea lehenetsi da azken 3 urteetan eman diren pausoetan. Herriko gazteak kontutan hartu dira eta lehenbizikoz, etxebizitzak alokatu ahal izateko laguntza bideratu da. Izan ere, gaur egungo egoera dela-eta, askok ez dute lanik, laguntzarik ere ez eta gurasoekin bizi dira. Egoera honen aurrean, etxe berriak egin beharrean,

daudenak ondo kudeatzeko erabakia hartu zen. Etxebizitza politika berria jarri da abian. Herrian ditugun etxe hutsak merkatura bideratu eta alokairua sustatzeko neurriak hartu ditugu.

“Laguntza honi esker, Azpeitian alokairuan zeuden ia etxe guztiak alokatzea lortu da”

Eneko Etxeberria alkateak jakinarazi duenez, "Azpeitian alokairuan zeuden ia etxe guztiak alokatzea lortu da. Fiskalitatearekin lotu beharreko kontua da. Izan ere, bigarren etxea duen jendeak gehiago ordaindu behar izaten du etxe horren zerga, eta etxe hori alokairura ateratzeko aukera ematen du egitasmo honek. Etxejabeak bada-ki Udala tartean dagoela, eta hileroko alokairuaren ordainketa bermatuta duela".

Datuak

- Izene-emate epea amaituta, 49 eskaera egon dira eta 47 onartu dira, 134.000 euro baino gehiago banatuz. 47 eskaera hauetatik, deialdia egin aurretik dagoeneko alokairuan bizi ziren herritarrek 22 ziren, deialdiaren ondorioz sortutako alokairu berriak, ladiz, 25 dira.
- Alde Zaharra biziberritzeko proiektuaren baitan kokatuta, Alde Zaharreko etxebizitza alokatzeagatik 50 euro gehigo ematea erabaki genuen. Eskaera guztien %39a izan da Alde Zaharrekoa, hau da, 18 eskari. Gainontzekoak, Alde Zaharretik kanpokoak.
- Azpeitiko gazteen alokairuaren errentari dagokionez, batzbesteko errenta 450 eurokoa da. Gehienek 500 eta 600 euro arteko errenta dute, 21ek hain zuzen ere, 15ek 400 eta 500 euro artekoa, 400 euro azpitik 10 pertsonen dute, eta batek bakarrik du, 600 euro baino gehiagoko errenta.

Herriko eta bailarako ekonomia sustatu da Fitur turismo azokan

Azpeitiko ekonomia sustatzeko beste tresna garrantzitsu bat turismoa da. Azpeitiak dituen baliabide turistikoak ugariak dira eta hauek erabiltzea bisitariak erakartzeko ezinbestekoa du. Horregatik, Urola bailarako presentzia berezia izan du Madrilgo Fitur nazioarteko turismo azokan. Turismo azoka horretan 165 herrialdek eta 9.107 enpresa eta erakundek hartu dute parte, eta 200.000 bisitaritik gora izan dira bertan, horietatik 120.000 sektoreko profesionalak, eta ugari izan dira gure bazterrek ezagutzeko interesa agertu dutenak. Honako eskaintza eman du Urolak Fiturrera.



• **Inaziotar bidea:** Turismo espirituala, naturakoa eta kulturala batzen ditu, 1522an Loiolako Inaziotar Azpeitia eta Manresa bitartean egin zuen erromesaldian oinarritutako ibilbide honek. Bidea igarotzen den eskualdeen garapen turistiko eta ekonomikorako duen potentzialaz oharturik, Eusko Jaurlaritzak turismo estratategia leku berezia du aurtengoa.

• **Euskadiko Bide berdeak** – Urola. Natur Turismoaren mostradorean, parke natural eta geoparkearekin batera, Euskadiko Bide Berdeak publikazioa berria sustatu da, eta bertan Azpeitia – Zumarraga Urolako bide berdeak bere lekua izan du.

• **Txoko propioa** Gipuzkoa barnealdeko mostradorean. Gipuzkoako lurraldeak bere mostradorea izan du, eta gainontzeko eskualdeekin batera gure eskualdeko eskaintza turistikoak bere lekua izan du, goian aipatu diren atalez aparte. Ala nola museoak (Trenaren Museoa, Ekainberri, Lili), espazio eta baliabide naturalak, alojamentu eta jatetxeak e.a.

• **Euskadi Gastronomika.** Enogastronomiako atalean ere izan da bailarako eskaintza, Euskadi Gastronomika markaren babesean. Bertan, aurkeztu berri den Urola Erdiko Enogastronomiako Produktu klubaren bidez, eskualdeko 10 enpresen eskaintza eta Urola Gustagarri bezelako ekimenak sustatu dira.

Eskualdeko 10 enpresa sartu dira Euskadi Gastronomika produktu klubaren barruan

Izan ere, Urola Erdia eskualdeak Euskadi Gastronomika, klubarekin bat egin zuen urtarrian. Euskadi Gastronomika, Eusko Jaurlaritzak Basquetourren bidez, Euskadi munduko jomuga turistiko gastronomikoen

artean erreferente bihurtzeko abian jarri duen ekimena da, eta aldi berean jomuga gastronomiko bezala sustatzeko erabiltzen duen Marka Turistikoa.

Gure eskualdean, honako hauek dira klubean sartzeko irizpideak bete eta parte hartzera pasa diren enpresak:

Laja Jatetxea, Azkoitia

Joseba Jatetxea, Azkoitia

Kiruri Jatetxea, Azpeitia

Mikel Uria Jatetxea, Azpeitia

Larrañaga Hotel-Jatetxea, Azpeitia

Jai Alai Jatetxea, Azpeitia

Egaña Gozotegia, Azpeitia

Añota Sagardotegi – Jatetxea, Azpeitia

Beizama Bizia Kooperatiba, Beizama

Aranburu Jatetxe – Landetxea, Aizarna-Zestoa.

Erreklamazio gehiago eta kontsulta gutxiago

Kontsumitzaileen informaziorako udal bulegoak 487 kontsulta eta 201 erreklamazio bideratu zituen iaz

Azkoitiko eta Azpeitiko kontsumitzaileen informaziorako bulegoak 2013an baino 30 erreklamazio gehiago tramitatu zituen iaz, 201 hain justu; herritarrek egindako kontsultak, berriak, gutxitu egin ziren, eta 2013an baino 37 gutxiago. Guztira 487 kontsulta eta 201 erreklamazio bideratu zituen iaz. Azken urteetan gertatu bezala, telefoniararen arloan egindako erreklamazioak igo dira gehien, 20 gehiago tramitatu baitira, eta gainerako zazpiak akademiak, zerbitzu juridikoak eta beste alor batzuetakoa izan dira. Kontsulta kopuruaren jaitsierari dagokionez, bi alor nabarmendu dituzte bulegoko arduradunek; batetik, banku zerbitzuetakoak jaitsi dira batik bat, orain

bi urte nabarmen igo baitziren horiek, eta bestetik, etxebizitzaren arloan jaitsi dira, hain justu etxebizitza gutxiago erosi direlako.

Hemen datu zehatzak:

• **Telefonia:** 118 erreklamazio eta 121 kontsulta bideratu ditu bulegoak. Fakturazio desadostasunak, SMS premiumak, zigorrak eta deskontuak izan dira bideratutako gai gehienak.

• **Elektrizitatea/gasa:** 46 erreklamazio eta 99 kontsulta bideratu dira. Kontratuan adierazitako epea baino lehenago beste konpainia batera aldatzeagatik kobratutako zigorrak, eta kontra-

tatutako gehigarriko zerbitzuen desadostasunagatik izan dira gehienak.

• **Komertzioa:** alor honetan 19 erreklamazio eta 66 kontsulta bideratu ditu udal bulegoak, gehienak Internet bidez egindako erosketen ingurukoak.

• **Administrazio publikoa:** Erreklamazio bat eta 38 kontsulta bideratu ditu udal bulegoak alor honetan. Enpresa pribatuek kudeatutako zerbitzu teknikoaren ingurukoak izan dira guztiak.

• **Banketxeak:** 31 kontsulta bideratu dira. Komisio igoerak, txartelak, eta hipotekarekin lotutako aseguruaren ingurukoak gehienak.

ENPLEGU ZENTROA

- **Norberak erabiltzeko eremua.**
- **Enplegua bilatzeko baliabideak.**
- **Banakako arreta.**



Zer eskaintzen du?

• **Zu laguntzeko prest dagoen Lan Orientazioko Teknikaria.**

• **Ordenagailuak Internetera sartzeko konexioarekin.**

• Informazio - panelak:

Lan eta prestakuntza eskaintzak, lan eskaintza publikoak eta prentsan argitaratutakoak, enpresen zerrendak, lan-merkatuari buruzko dokumentazioa eta abar.

• Banakako Orientazioa:

Lanbideen eskaera berriei, klabeen eskaera eta abar.

Curriculum eta Gutuna

Lan elkarrikeria prestatzea

Lan-Bilaketa Aktiboa

Gizarte Trebetasunak/ Komunikazioa

• Talde Ekintzak:

Zure Helburu Profesionala zehazteko Tailerra

Eskualdeko baliabideen Tailerra

LinkedIn, Twitter eta hainbat sare ezberdinen Tailerrak

Hautaprobeen tailerra

Gizarte Trebetasunak/ Komunikazioaren Tailerra

Informazio, Motibazio eta Autoenplegurako Tailerra.

Norentzat zuzenduta dago?

• Langabetuentzat, zentzu zabalean.

• Langabezian erortzeko arriskuan edo enplegua hobetu nahian ari diren langileentzat.

• Aktiboak izan daitezkeen pertsonentzat.

• Eta oro har, lan egiteko adina duen eta, edozein egoeretan egonik ere, enplegua modu aktiboan bilatzeko interesa duen edonorentzat.

Kontaktatzeko: Sindikatu Zaharra, Enparan kalea 1-3. Azpeitia.

Tel.: 943 02 60 69

Ordutegia: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 09:00 - 13:30 / 15:30 - 18:00.

Ohiko itxura hartu du Perez Arregi plazak



Plaza oinezkutzako lanak direla-eta, azoka lekuz aldatu behar izan zen. Azokako postu desberdinak Done Jakue kalera eta Perez Arregi plazara eramatea aurreikusten zen eta horregatik, Perez Arregin zeuden eserlekuak kendu egin zituen Udalak. Horrez gain, festak direla medio, eserlekurik gabe egon da gunea. Eserleku horiek, ordea, berriro jarri dira, azokako postuak berrantolatu ondoren, Perez Arregira Plazara ez delako posturik eman.



Hitzarmena Udala eta Sokaitz taldeak

Udak eta Sokaitz eskalada taldeak hitzarmena sinatu dute. Honela, udalak Loiola 91ko eraikineko lokal bat utzi dio klubari eta honek, talde lanean egokitu du. Era berean, klubak 200 euroko alokairua ordaindu beharko du lokalagatik. Udalak, berriz, beharrezko material guztia finantzatu du, 30.000 euro jariz. Hitzarmenak jasotzen duenez, azpeitiar guztientzat irekia izan beharko du lokalak eta Kirol Patronatuko bazkideek, langabetuek eta ikasleek, eskalada taldeak ezarritako kuotaren erdia bakarrik ordainduko dute. Udalak eskerrak eman nahi dizkie Sokaitz taldeko kideei, euren lana eta inplikazioagatik ez balitz, maila honetako proiektua aurrera eramatea ezinezkoa izango baitzen..

2015 Joxe Takolo Beka, abian

Joxe Takolo Beka 2015 abian da dagoeneko. Goi-mendizaletasunarekin lotuta dauden maila handiko eta orijinaltasuneko proiektuak bultzatzeko helburua duen beka honek 3.000 euro emango dizkio proiektu irabazleari, eta Azpeitiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Herriko Mendi Federazioak eta Lagun Onak Mendi Bazkunak finantzatuko dute. Euskal Herriko mendizale, mendi elkarte eta beste hainbat eratako elkarte eta taldeek eskatu dezakete. Proiektuak martxoaren 31ra bitartean aurkeztu behar dira Udaleko Erregistroan.



Musikaren aldeko hitzarmena

azpeitiko Udalak eta musika bandak hitzarmena sinatu dute. Eneko Etxeberria alkateak eta Aitor Hernandez musika banda elkarteko lehendakariak sinatutako akordioaren arabera, musika bandak hainbat kontzertu eta emanaldi eskainiko ditu 2015 urtean zehar. Udalak, berriz, 54.800 euroko laguntza emango dio bandari. Azpeitiko musika bandak herriko festa eta ospakizunetan duen garrantzia nabarmendu nahi izan du Udalak hitzarmen honekin.

12, osteguna

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

13, ostirala

BERTAN MERKATARI ELKARTEA
Stock Azoka
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: egun osoa

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

JANTOKI BEGETARIANO + MOBY DICK
Ordua: 20:00
Tokia: Gaztetxea

14, larunbata

SAN JOSE JAIK
16:30 Biathloia XIV. SAN JOSE SARIA

BERTAN MERKATARI ELKARTEA
Stock Azoka
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: egun osoa

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

TXIKI BIRAN
Kantu kontari- Udal Musika Banda
Ordua: 16:30
Tokia: Soreasu Aretoa

DOKUMENTAL EMANALDIA
“JOSTUNAK”
Ordua: 18:30
Lekua: Soreasu Antzokia

BERTSIO GAUA
Ordua: 21:30
Lekua: Gaztetxea

VENDETTA ETA EMON!
Ordua: 23:00
Lekua: Sanagustin Kulturunea

15, igandea

KORRIKA KULTURALA
Xoxotera igoera, gero denentzat salda

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

16, astelehena

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

17, asteartea

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

18, asteazkena

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

19, osteguna

SAN JOSE JAIK
11:30 Zezen Txikiak eta poniak
13:00 Asto lasterketa
17:30 Herri kirolak Aizkolaria, Harrijasotzaileak
Egun guztian zehar trikitilariak ibiliko dira

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

20, ostirala

SAN JOSE JAIK
10:30 Mus txapelketa- Xanadu kafetegia

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

ANTZERKIA
“HAZPARNEKO ANDEREA”
Ordua: 21:30
Lekua: Soreasu Antzokia

21, larunbata

TRIKITILARI JAIALDIA
Ordua: 17:30
Lekua: Soreasu Aretoa

SAN JOSE JAIK
21:00 Auzo Afaria Elustondo anai arrebeekin

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

22, igandea

KORRIKA KULTURALA
Erromeria eta herri bazkaria
Lekua: Sanagustin kulturunean

KORRIKA
Ordua: 19:30

IMANOL ELIAS SARIA ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

XXXIII.SAN JOSE SARIA
Kategoria: juniorrak
Ordua: 16:00
Irteera/amaiera: Aranatik

23, astelehena

KORRIKA KULTURALA
Korrika Txikia eta herriko pailazo gazteen emanaldia plazan

GIZA ESKUBIDEA MARRAZTEN
Partehartzaileak Azpeitiko Ikastetxeak
Erakusketak + proiektuaren garapena
Ordua: Goiz/arratsalde
Lekua: Betharran erakusketak aretoa

24, asteartea

GIZA ESKUBIDEA MARRAZTEN
Partehartzaileak Azpeitiko Ikastetxeak
Erakusketak + proiektuaren garapena
Ordua: Goiz/arratsalde
Lekua: Betharran erakusketak aretoa

25, asteazkena

GIZA ESKUBIDEA MARRAZTEN
Partehartzaileak Azpeitiko Ikastetxeak
Erakusketak + proiektuaren garapena
Ordua: Goiz/arratsalde
Lekua: Betharran erakusketak aretoa

26, osteguna

GIZA ESKUBIDEA MARRAZTEN
Partehartzaileak Azpeitiko Ikastetxeak
Erakusketak + proiektuaren garapena
Ordua: Goiz/arratsalde
Lekua: Betharran erakusketak aretoa

AZOKA HERRITIK
Tokia: 19:30
Lekua: Sanagustin Kulturunean

27, ostirala

GIZA ESKUBIDEA MARRAZTEN
Partehartzaileak Azpeitiko Ikastetxeak
Erakusketak + proiektuaren garapena
Ordua: Goiz/arratsalde
Lekua: Betharran erakusketak aretoa

28, larunbata

XXII. MARATOI ERDIA
Ordua: 16:30

29, igandea

XXXIV.AZPEITIA SARIA
Kategoria: kadeteak
Ordua: 16:00
Irteera/amaiera: Arana Kalea

HEMENbuy.com

bertako dendariak on-line

